

## SINISMENAREN URTEA

Doinua: "Egun da Santimamiñe"

*Batetik naz euskalduna  
ta bestetik fededuna,  
biak batera zainduko ditut  
galtzen ez badot zentzuna.*

1

Gaur gurasoen hazia  
bihar bateo grazia;  
hau ez da nire merituena,  
ez da nik irabazia

2

Bizitzako gorabeherak  
izan ohi dira aukerak,  
txarra gainditu daikegu biok:  
Jainkoak eta norberak

3

Arrisku danak garaitu,  
haztea ezin amaitu;  
harritzekoa, frutu emoten  
zahartzaroan be jarraitu.

4

Niretzat hain da pozgarri,  
jakin daizun deusut jarri:  
landareak lez, behar izan dot  
alkarte baten euskarri.

5

Haundi hazi jat barruan,  
ezin gorde ezkutuan;  
Jesus Jaunaren testigua naz  
neu bizi nazan munduan.

6

Bihotzean daukat pil-pil,  
ta ezin naz egon isil:  
mostaza zugaitz honen sustraiak  
erein ta erein banabil.

7

Bila badabil, HARRERA,  
galdueti URTEEN BIDERA  
eta gehiago gura dabenei  
zeuk PROPOSATU aukera.

8

Hazia izan da ona  
ta bardin emon jakona;  
a zer tantaia sortzen dan hortik:  
*hori da kristau gizona.*

A. Martzel

